

**EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR
INSTITUTUAREN ETA EUSKO IKASKUNTZAREN
ARTEKO HITZARMENA NAFARROAKO
HIZKUNTZEI BURUZKO IKERKETA JARDUERAK
EGITEKO 2025.URTEAN.**

A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna gauzatze aldera.

B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Nafarroako Foru Diputazioa izan zela 1918an Eusko Ikaskuntza sortu zuen erakundeetako bat.
2. Eusko Ikaskuntzaren xedea, euskal gizartearen eta kulturaren adierazpide guztien iraupenak eta finkapenak duten garrantziaz jabeturik, gogoeta, ikasketa, ikerkuntza, prestakuntza eta zabalkundearen bidez haien kohesioa, eraldaketa eta modernizazioa sustatzen dituzten guztiak elkartzea dela.
3. Eusko Ikaskuntzaren jarduerak, gure kulturaren ezaugarri nabarmenak eta gizarte, ekonomia, politika eta kultura alorretako ikuspegia ez ezik, estrategikotzat jotzen diren kultura unibertsalaren gainerako elementuak ere aintzat hartzen dituela.
4. Funtsean diziplina anitzeko proiektu eta jardueren inguruan egituratzen dela. Eusko Ikaskuntza, gizartearen zeharkako arazoetara argi eta garbi dago bideratuta.
5. Eusko Ikaskuntzaren berezko hizkuntza euskara dela, gaztelania eta frantsesa ere haren hizkuntza ofizialak izanik. Eta Eusko Ikaskuntzak euskararen inguruko ikerketak eta hausnarketak bideratzea dituela helburu.

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA –
INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y EUSKO
IKASKUNTZA-SOCIEDAD DE ESTUDIOS
VASCOS PARA ACTIVIDADES DE
INVESTIGACIÓN SOBRE LAS LENGUAS DE
NAVARRA EN 2025.**

A) OBJETO:

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales del convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, así como regular el marco de compromisos que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución en lo que a la Comunidad Foral de Navarra concierne.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que la Diputación Foral de Navarra fue una de las instituciones que fundaron Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos en 1918.
2. Que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos tiene por finalidad la agrupación de quienes, siendo conscientes de la importancia de la pervivencia y consolidación de las sociedades y cultura vascas, promueven su cohesión, transformación y modernización por medio de sus actividades de reflexión, estudio, investigación, formación y divulgación.
3. Que en la actividad de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, además de los diversos elementos relevantes de nuestra cultura y de la perspectiva social, económica, política y cultural, se atienden cuantos elementos de la cultura universal se consideran estratégicos.
4. Que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos se organiza en torno a proyectos y actividades que tienen fundamentalmente carácter interdisciplinar, con una clara orientación a abordar problemas transversales de la sociedad.
5. Que el euskera es la lengua propia de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, siendo el castellano y el francés asimismo lenguas oficiales de la entidad. Y que Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos tiene como objetivo canalizar las investigaciones y reflexiones realizadas en torno al euskera.

6. Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Eusko Ikaskuntzak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

6. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma del presente Convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1.2 artikuluan esaten da zein diren foru lege horren ezinbesteko helburuak: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hori guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.
3. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.
4. 2023-2027 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honakoa aurreikusten du: Erakunde publikoekin eginiko hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.
5. 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, honako izena duen diru-saila duena: B30002 B3200 4816 334100 "Eusko Ikaskuntzarekiko hitzarmena, Nafarroako hizkuntzei buruzko ikerketa jarduerak egiteko", 60.000 euroko zuzkidura duena. Dokumentu honek xede hori betetzen du.

C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.
2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, establece en su artículo 1.2 los objetivos esenciales de la misma, proteger el derecho de la ciudadanía a conocerlo y usarlo y concretar los medios para hacerlo posible, observar su recuperación y desarrollo, indicando medidas para fomentar su uso y garantizar la enseñanza y uso del euskera, siguiendo los criterios de voluntariedad, gradualidad y respeto, todo ello de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.
3. El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, asigna al Organismo, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.
4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2023-2027 destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.
5. La Ley Foral 19/2024, de 26 de diciembre, de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2025, que contempla la partida nominativa B30002 B3200 4816 334100 "Convenio con Eusko Ikaskuntza para actividades investigación sobre las lenguas de Navarra", dotada con 60.000 euros. El presente documento da cumplimiento a dicho objetivo.

6. Eusko Ikaskuntza onura publikoko, xede orokorretako eta irabazi asmorik gabeko Elkartek 2023ko ekainaren 3ko Ez Ohiko Batzar Nagusian onetsitako araudia bete behar du.

6. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Asociación de Utilidad Pública de fines generales y que carece de ánimo de lucro debe cumplir lo establecido en sus Estatutos aprobados en la Asamblea General Extraordinaria de 3 de junio de 2023.

D) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagunduko diren gastuak 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31 artean sorrarazitakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2025.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025.

E) AURREKONTUA

2025erako aurrekontua 60.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2025eko Aurrekontu Orokorren "Eusko Ikaskuntzarekiko hitzarmena, Nafarroako hizkuntzei buruzko ikerketa jarduerak egiteko" izeneko B30002 B3200 4816 334100 kontu-sailaren kargura.

E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2025 será de 60.000 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4816 334100, denominada "Convenio con Eusko Ikaskuntza para actividades de investigación sobre las lenguas de Navarra" de los Presupuestos Generales de Navarra para 2025.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

1) EzBERDIN BERDINAK:

Euskararen eta etorkizuneko euskal nortasunaren gaineko hausnarketa artistikoa.

F) ACTIVIDADES QUE SERÁN OBJETO DE SUBVENCIÓN

1) EzBERDIN BERDINAK:

Reflexión artística sobre el euskera y la identidad del futuro.

SARRERA

Proiektu honek Kukai Dantza Taldearen diziplina arteko sormen-lana Nafarroan aurkeztea proposatzen du euskal lurralde guztietan antzeztuko baita, hasieran Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan aurkeztutako ikuskizuna oinarri hartuta. Mugimenduaren bidez, euskal kulturaren historia, aniztasuna eta transmisioa irudikatzen dira, ikusleari hausnarketarako gonbita eginez. Dantza garaikidea eta tradizionala, askotariko musika-tresna, bertsolaritza, antzerkia eta rap-a bezalako adierazpen garaikideak uztartzen dira, esperientzia artistiko integrala sortuz, euskararen eta euskal kulturaren balioak eta etorkizuna ardatz hartuta.

Ikuskizunak euskararen eta nortasunaren inguruko gogoeta sustatu nahi du, emozioz betetako bidaia baten bidez, belaunaldi eta lurralde ezberdinen

INTRODUCCIÓN

Este proyecto propone presentar el trabajo creativo interdisciplinar de Kukai Dantza Taldea en Navarra ya que se representará todos los territorios del euskera, inicialmente en base al espectáculo presentado en la XIX edición del Congreso de la Sociedad de Estudios Vascos. A través del movimiento se representa la historia, la pluralidad y la transmisión de la cultura vasca, invitando al espectador a la reflexión. Danza contemporánea y tradicional, instrumentos musicales variados, bertsolarismo, teatro y expresiones contemporáneas como el rap se fusionan creando una experiencia artística integral, centrada en los valores y el futuro del euskera y la cultura vasca.

El espectáculo pretende fomentar la reflexión en torno al euskera y la identidad a través de un viaje cargado de emociones, tendiendo puentes entre

arteko zubiak eraikiz eta tradizioa berrikuntzarekin uztartuz. Hausnarketa-saioak gehituta, ikusleek ez dute soilik ikuskizun bat jasoko, baizik eta elkarrekintzarako eta eztabaidarako espazio bat ere izango dute, hizkuntzak, identitateak, demografia berriak eta euskal kulturaren etorkizuna bezalako gaiak jorratuz. Proiektuak ikerkuntzaren eta euskal kulturaren arteko uztartzean erreferente izateko bokazioa du, komunitateari kultura partekatua garrantzia transmitituz eta ikusle bakoitzari euskararen eta euskal kulturaren etorkizunaren eraikuntzan parte hartzeko aukera eskainiz, proiektuan parte hartuz, bere ideiak eta gogoetak emanez, proiektu honen emaitza izango direnak.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

Orokorrak:

- Esperientzia kultural eta artistiko hau Euskal Herriko hiriburuetara eramatea, transmisioari eta kulturen arteko elkarriketari buruzko hausnarketa sustatuz.
- Euskal kulturaren, hizkuntzaren eta aniztasunaren balioa indartzea, diziplinari lan baten bidez.
- Euskal kulturari, historiari, etorkizunari, hizkuntzari, aniztasunari... buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea.
- Ikuskizun inklusiboa eta irisgarria eskaintzea, askotariko publikoekin konektatzeko.
- Kontzientzia sortzea.
- Gogoeta sustatzea.
- Parte-hartzaileak ahalduntzea.
- Elkarriketa sustatzea.
- Komunitatea sustatzea.

Espezifikoak:

- Komunitatearen kide izatearen zentzua indartuko duten topaguneak sortzea.
- Publikoa gonbidatzea euskararen eta euskal kulturaren transmisioak eta kulturen arteko elkarriketak mundu aldakor honetan duten garrantziaz hausnartzera.
- Publikoak artistekin eta gaiekin duen parte-hartzea eta elkarrenergina sustatzea.

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ikuskizun nagusia:

Iraupena: 60 minutu.

diferentes generaciones y territorios y uniendo la tradición con la innovación. Con la incorporación de las sesiones de reflexión, los espectadores no recibirán simplemente un espectáculo, sino que tendrán también un espacio para la interacción y el debate, abordando temas como las lenguas, las identidades, las nuevas demografías y el futuro de la cultura vasca. El proyecto tiene vocación de ser un referente en la unión de la investigación con la cultura vasca, transmitiendo a la comunidad la importancia de la cultura compartida y ofreciendo a cada espectador la posibilidad de participar en la construcción del futuro del euskera y la cultura vasca, siendo partícipe del proyecto, aportando sus ideas y reflexiones, que serán el resultado de este proyecto.

OBJETIVOS DEL PROYECTO

Generales:

- Trasladar esta experiencia cultural y artística a todas las capitales del territorio de habla vasca, promoviendo la reflexión sobre la transmisión y el diálogo intercultural.
- Reforzar el valor de la cultura, la lengua y la diversidad vascas a través de un trabajo interdisciplinar.
- Fomentar el conocimiento y la reflexión sobre la cultura, la historia, el futuro, la lengua, la diversidad...
- Ofrecer un espectáculo inclusivo y accesible que conecte con diferentes públicos.
- Generar conciencia.
- Fomentar la reflexión.
- Empoderamiento de los participantes.
- Fomentar el diálogo.
- Promoción de la comunidad.

Específicos:

- Crear un punto de encuentro que refuerce el sentimiento de pertenencia a la comunidad.
- Invitar al público a reflexionar sobre la importancia de la transmisión del euskera y de la cultura vasca y del diálogo entre culturas en un mundo cambiante.
- Fomentar la participación y la interacción del público con los artistas y la temática.

DESCRIPCIÓN DEL PROYECTO

Espectáculo principal:

Duración: 60 minutos.

Formatua:

- Dantza garaikidearen eta tradizionalaren konbinazioa.
- Zuzeneko musikako esku-hartzeak (txalaparta, txistu, musika elektronikoa, rapa, etab.).
- Bertsolariak eta antzerki-emanaldiak sartzea.
- Belaunaldi eta lurralde guztietako artisten parte-hartzea, aniztasunaren eta inklusioaren balioak nabarmenduz.

Ondorengo gogoeta-saioa:

Iraupena: 60-90 minutu.

Helburua: artisten eta ikusleen arteko elkarriketa sustatzea, honako hauen inguruan:

- Euskal testuinguruan sortzen ari diren identitateak.
- Bizikidetzaren aniztasunean.
- Kulturaren eta euskararen transmisioaren erronkak.

Formatua:

- Moderatzaile baten sarrera laburra.
- Publikoaren gogoeta irekiak.
- Ideia nagusien laburpena.

Ikerketaren emaitzak:

- Ikerketa honen emaitza txosten batean aurkeztuko da, gogoeta-saioan sortutako ideia nagusiak bilduko dituen.

XEDE-PUBLIKOA

- Euskal kulturaren nahiz euskararen interesa duten eta Nafarroan bizi diren biztanleak.
- Hezkuntza-komunitateak (eskolak, unibertsitateak, kultura-zentroak).
- Lurraldearen aniztasun demografikoa ordezkatzen duten hainbat kolektibo.
- Arte eszenikoetan eta kulturaren interesa duen publiko orokorra.

2) ELKARBIZITZARAKO ZUBIAK NAFARROAN

Nafar gizartea gero eta askotarikoagoa da, migrazio-prozesuek ekarritako kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren ondorioz. Bizikidetzaren harmonizazioa eta gizarte-kohesioa lortzeko, harrera prozesuak inklusiboak eta enpatikoak izan behar dira, politika publiko egokien eta gizartearen inplikazio aktiboaren bidez. Integrazioa ez da soilik administrazioaren ardurak; komunitate osoak parte hartu behar du, elkarriketa sustatuz eta aurreiritziak gaindituz.

Formato:

- Combinación de danza contemporánea y tradicional.
- Intervenciones musicales en vivo (txalaparta, txistu, música electrónica, rap, etc.).
- Incluir bertsolaris y representaciones teatrales.
- Participación de artistas de todas las generaciones y territorios, destacando los valores de la diversidad y la inclusión.

Sesión de reflexión posterior:

Duración: 60-90 minutos.

Objetivo: fomentar el diálogo entre artistas y público en torno a:

- Identidades emergentes en el contexto vasco.
- Convivencia en la diversidad.
- Retos de la cultura y la transmisión del euskera.

Formato:

- Breve introducción de un moderador.
- Reflexiones abiertas del público.
- Resumen de las ideas principales.

Conclusiones de la investigación:

- El resultado de esta investigación se presentará en un informe, que recogerá las ideas principales surgidas en la sesión de reflexión.

PÚBLICO OBJETIVO

- Personas residentes en Navarra con interés por la cultura y por el euskera.
- Comunidades educativas (escuelas, universidades, centros culturales).
- Diversos colectivos que representan la diversidad demográfica del territorio.
- Público general interesado en las artes escénicas y la cultura.

2) PUENTES PARA LA CONVIVENCIA EN NAVARRA

La sociedad navarra es cada vez más plural, como consecuencia de la diversidad cultural y lingüística derivada de los procesos migratorios. Para lograr una convivencia armoniosa y de cohesión social, los procesos de acogida deben ser inclusivos y empáticos a través de las políticas públicas adecuadas y la implicación activa de la sociedad. La integración no es sólo responsabilidad de la administración; toda la comunidad debe participar, fomentando el diálogo y superando prejuicios.

El euskera, como pilar de la identidad, se enfrenta a nuevos retos y oportunidades, especialmente en

Euskara, identitatearen zutabe gisa, erronka eta aukera berrien aurrean dago, bereziki etorkinen inklusioaren testuinguruan. Hizkuntza babestu eta transmititzea funtsezkoa da, baina hori ez da bazterketaren bidez egin behar, baizik eta kultura eta hizkuntza guztien arteko elkartruke aberasgarri baten bidez. Nafar nortasuna dinamikoa da, eta beste errealitate batzuekin harremanetan aberastu daiteke.

Gizarte kohesionatu bat eraikitzeko, aniztasuna errespetatu eta inklusio aktiboa sustatu behar da. Horretarako, berdintasuna, diskriminaziorik eza, hezkuntza eleaniztuna, elkarbizitza sustatzeko espazioak eta politika publiko inklusiboak beharrezkoak dira. Integrazio prozesu arrakastatsu batek komunitate sendoago bat sortzeko aukera ematen du, parte-hartze aktiboaren eta errespetuan oinarritutako bizikidetzaren bidez.

HELBURUAK

Kultura arteko bizikidetzaren sustatzea da helburu nagusia, etorkinek euskara ikasi eta nafar kultura ezagutzuz gizarteratzea errazteko. Proiektuak ikuspegi inklusibo eta parte-hartzailea du, integrazioa aberasgarria eta errazagoa izan dadin.

Helburu espezifikoak

1. Euskara ikastea eta erabiltzea

- Euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa bultzatzea, integratzeko tresna gisa duen balioa nabarmenduz.
- Hizkuntzarekiko interes positiboa sustatu eta ikaskuntza oztopo psikologiko eta sozialik gabe egiteko aukera eskainiz.
- Euskararen historia, balioa eta gizartean duen eginkizuna ezagutarazi.
- Ikaskuntza errazteko baliabideen inguruko informazioa zabaltzea eta metodologia dinamikoak garatzea.

2. Nafar kultura eta nortasuna

- Nafar kultura eta nortasuna hurbildu etorkinei, aniztasuna eta kulturen arteko elkarriketa sustatzeko.
- Nafarroako kultur aniztasuna ezagutarazi, bertako errealitate linguistiko eta identitario desberdinen ulermena sustatuz.
- Etorkinek nafar kulturari buruz dituzten pertzepzioak aztertu.
- Ondare kulturala ezagutarazi eta etorkinak komunitatearekin konektatzeko jarduera eta parte-hartze guneak sortu.

el contexto de la inclusión de los inmigrantes. Proteger y transmitir la lengua es fundamental, pero debe hacerse a través de un intercambio enriquecedor entre todas las culturas y lenguas. La identidad navarra es dinámica y se puede enriquecer en las relaciones con otras realidades.

Para construir una sociedad cohesionada hay que respetar la diversidad y promover la inclusión activa. Para ello es necesario la igualdad, la no discriminación, la educación plurilingüe, los espacios para fomentar la convivencia y las políticas públicas inclusivas. Un exitoso proceso de integración permite crear una comunidad más sólida a través de la participación activa y la convivencia basada en el respeto.

OBJETIVOS

El objetivo principal es fomentar la convivencia intercultural para facilitar la integración social de las personas inmigrantes mediante el aprendizaje del euskera y el conocimiento de la cultura navarra. El proyecto tiene un enfoque inclusivo y participativo para que la integración sea enriquecedora y fácil.

Objetivos específicos

1. Aprendizaje y uso del euskera

- Impulsar la motivación para aprender y utilizar el euskera, destacando su valor como herramienta de integración.
- Fomentar el interés positivo por la lengua y ofrecer la posibilidad de realizar el aprendizaje sin barreras psicológicas y sociales.
- Dar a conocer la historia del euskera, su valor y su papel en la sociedad.
- Ampliar la información sobre recursos para facilitar el aprendizaje y desarrollar metodologías dinámicas.

2. Cultura e identidad de Navarra

- Acercar la cultura y la identidad navarra a los inmigrantes para fomentar la diversidad y el diálogo intercultural.
- Dar a conocer la diversidad cultural de Navarra, promoviendo el entendimiento de sus diferentes realidades lingüísticas e identitarias.
- Explorar las percepciones de la población inmigrante sobre la cultura navarra.
- Dar a conocer el patrimonio cultural y crear espacios de actividad y participación para conectar a los inmigrantes con la comunidad.

3. Cohesión social y convivencia intercultural

3. Gizarte-kohesioa eta kulturen arteko bizikidetzatza

- Hizkuntza- eta kultura-aniztasunari balioa eman, etorkinen eta bertakoen arteko topaketak eta lankidetzatza sustatuz, komunitatean parte hartzeko laguntza-sareak sortuz.
- Hezkuntzaren, gizartearen eta lanaren esparruetan parte hartzea errazteko estrategiak garatu.
- Euskarari eta nafar nortasunari buruzko estereotipoak murriztu.

XEDE TALDEA

Proiektuaren arrakasta xede den publikoa behar bezala identifikatzearen araberakoa da; hartarako, parte-hartzaileek Nafarroako etorkinen lagin esanguratsua ordezkatzeko dutela ziurtatu behar da. Euskara eta Nafarroako kulturari buruzko esperientzia eta pertzepzio desberdinak dituzten Nafarroako askotariko etorkinak inplikatu nahi dira: etorri berriak, sistema elebidun batean eskolatutako haurren gurasoak, zerbitzu sektoreko langileak, gazte etorkinak eta euskara ikasi nahi baina euskara utzi duten pertsonak.

Proiektu honen azken helburua da etorkinek euskara ikasteko eta Nafarroako kulturari integratzeko dituzten jarrera, itxaropen eta oztopoen panorama errealista eta adierazgarria lortzea.

Xede publikoaren segmentazio egokiari esker, tailerrek eta focus groupek datu erabilgarri eta esanguratsuak sortuko dituzte inkesta adierazgarri bat diseinatzeko, eta, horrela, Nafarroan etorkizunean integrazio linguistiko eta kulturalerako estrategiak garatzen lagunduko dute.

METODOLOGIA

Proiektua bi metodologia osagarritan egituratzen da: focus groupak eta tailer interaktiboak, bakoitza helburu espezifikoekin, etorkinek euskararekiko eta Nafarroako kulturarekiko dituzten jarrerei eta itxaropenei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa biltzea ahalbidetuko dutenak.

Focus group saioak Nafarroako hiru udalerritan egingo dira, talde heterogeneoekin.

Tailer interaktiboak Nafarroako hizkuntza eremuetan egingen dira, profil sozioekonomikoak, adinak eta hezkuntza maila desberdinak dituzten etorkinen parte-hartzea bermatuz.

- Poner en valor la diversidad lingüística y cultural, fomentando los encuentros y la colaboración entre inmigrantes y autóctonos, creando redes de apoyo para la participación y la inclusión en la comunidad.
- Desarrollar estrategias para facilitar la participación en los ámbitos educativo, social y laboral.
- Reducir estereotipos sobre el euskera y la identidad navarra.

PÚBLICO OBJETIVO

El éxito del proyecto depende de la correcta identificación del público objetivo, asegurando que los participantes representen una muestra significativa de la población inmigrante en Navarra. Se busca involucrar a un público diverso de migrantes en Navarra con distintas experiencias y percepciones sobre el euskera y la cultura navarra: recién llegados, padres de niños escolarizados en un sistema bilingüe, trabajadores del sector servicios, jóvenes migrantes y personas que han querido aprender euskera pero que lo han abandonado.

El objetivo final de este proyecto es obtener un panorama realista y representativo de las actitudes, expectativas y barreras que enfrenta la población migrante respecto al aprendizaje del euskera y su integración en la cultura navarra.

La correcta segmentación del público objetivo permitirá que los talleres y focus groups generen datos útiles y significativos para el diseño de una encuesta representativa, contribuyendo así a futuras estrategias de integración lingüística y cultural en Navarra.

METODOLOGIA

El proyecto se estructura en dos metodologías complementarias: focus groups y talleres interactivos, cada uno con objetivos específicos que permitirán recoger información cualitativa y cuantitativa sobre las actitudes y expectativas de la población inmigrante hacia el euskera y la cultura navarra.

Las sesiones de focus group se desarrollarán en tres municipios de Navarra, con grupos heterogéneos.

Los talleres interactivos se llevarán a cabo en las diferentes zonas lingüísticas de Navarra, garantizando la participación de personas inmigrantes con perfiles socioeconómicos, edades y niveles educativos diversos.

La información obtenida servirá como base para diseñar una encuesta representativa, que refleje las

Lortutako informazioa oinarri izango da inkesta adierazgarri bat diseinatzeko, etorkinek euskarari eta Nafarroako nortasun kulturalari buruz dituzten pertzepzioak, oztopoak, motibazioak eta interesak islatuko dituen.

ESPERO DIREN EMAITZAK

Espero diren emaitzak hiru arlotan banatzen dira:

1. Jarrerak eta pertzepzioak

- Euskararen eta Nafarroako kulturaren interes eta balorazio positibo handiagoa.
- Nafarroako nortasunari buruzko ikuspegia aldatzea.
- Konfiantza handiagoa euskarazko jardueretan eta tokiko kultur ekitaldietan parte hartzeko.

2. Ikaskuntza eta parte-hartzea

- Euskara ikasteko oztopoak eta aukerak identifikatzea.
- Euskara ikasteko jakin-mina eta motibazioa piztea.
- Nafarroako kultura eta tradizioak hobeto ezagutzea.

3. Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa

- Kulturartekotasuna eta bizikidetzatza sustatzea.
- Etorkinen eta tokiko komunitatearen artean laguntza-sareak sortzea.
- Nafarroan kultura- eta hizkuntza-inklusioa indartzeko proposamenak garatzea.

Proiektuak etorkinen artean euskararekiko eta nafar kulturarekiko ikuspegi irekiagoa sustatzea du xede, ikaskuntzarako eta parte-hartzerako aukerak sortuz eta aniztasunetik abiatutako integrazio eredu bat indartuz.

PROIEKTUAREN ESKALAGARRITASUNA

